

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

ESTABLEZIMENTUAK EDEGITEKO UDAL JARDUEREAREN TASEA

1. artikulua. OINARRIA ETA IZAKEREA

Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 2. eta 21. artikuluetan oinarrituta, udal honek establezimenduak edegiteko udal jardueraren tasea eskatuko dau.

2. artikulua. ZERGA EGITATEA.

1- Tasearen zerga egitatea. kasu honeetarako, udal jarduerak da:

1. Establezimenduak edegiteko jarduera lizentzia emotea.
2. Aurretiazko komunikazinoa eta/edo aitorten erantzulearen menpe dagozan establezimenduen edegite ondoko kontrola.

2- Jarduera lizentzia: Udal jardueraren tasearen zerga egitatea da industria eta merkataritzako establezimenduen segurtasun, osasun, osasungarritasun eta garbitasun baldintzak beteten dauzen edo ez egiaztetako udal jarduerak, baita udalaren edo erakunde guztien ordenantzan eta erregelamentuan eskatzen diran baldintzak be, lokala zabaltzeko lizentzia eskuratu ostean. Horreek alde aurretik betetea ezinbestekoa da, udalak lizentzia emon daian, Tokiko Korporazioen zerbitzuen Erregelamentuaren 22. artikulua dakarren lizentzia hain zuzen be.

3- Aurretiazko komunikazinoa eta/edo aitorten erantzulearen menpe dagozan establezimenduen edegite ondoko kontrola: Tasearen zerga egitateak barruan hartzen dau, subjektu pasiboak aurretiaz adierazitako jarduerak zabaldu osteko kontrolerako udalak burutu beharreko jarduerak teknikoak eta administratiboak; baita aitortutako baldintzen egiaztapena, egindako eta adierazitako jarduerak edo egin gura izan danak urigintza arloko araudia beteten dauen egiaztetako, eta horrez ganera, urigintzako planeamentua eta eraikin, lokal, instalazio eta garatzeko bete beharreko tramitazio hau derrigorrezkoa daben jarduerak burutzera zuzendutako eremu libreei aplikagarriak jakezan udal ordenantzak. Borondatez eskatzen dabenentzat, esate baterako, handitzeak, erabilera aldaketak eta jarduerak barriak sartzeko bai, baina kontuan izanda, jarduerak barri hori ez dagoala Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalen kode ber-beragaz sailkatuta eta jardueraren kalifikazioan ez dakarrela ezelako aldaketarik. Guzti hori, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84. artikulua administrazioari emondako esku hartzeko eskumenari esker.

Udal jarduerak hori subjektu pasiboaren aurretiazko adierazpenaren ondorioz sortu daiteke, edo ikuskatze jardueraren ondorioz, adierazo ez diran jarduerak dagozala egiaztetan danean, edo egindako aurretiazko adierazpenak bere osotasunean babesten ez dauzan kasuak antzemoten diranean

4- Lokala zabaltzen dala ulertuko da:

- a) Establezimendua lehenengoz ipinteko jarduerak egiten hasteko.

- b) Establezimentuan egindako jarduera aldatzea edo handitzea, titular berak jarraitzen badau be.
- c) Establezimentua handitzea eta bertan egiten diran eta artikulua honen 1. atalean emondako baldintzak ikutzen ez dauzen aldaketak egitea; horretarako, baldintzak egiaztatu behar dira barriro.

3.- Industriako edo merkataritzako establezimentua etxebizitzarako bakarrik ez dan eta jentearentzako zabalik ez dagoan higiezinari deritxo, beti be baldintza honeek beteten badauz:

- a) Enpresako, fabrikako, eskulangintzako, eraikuntzako, merkataritzako eta zerbitzuetako jardueraren batekoa izatea, ekonomia jardueren ganeko zergeari lotuta.
- b) Garatzen ez badira be, jarduera horreen lagungarri edo osagarri diran jarduerak, edo hareekaz zerikusia daukienak etekinak edo aprobetxamentuak jasota, esate baterako: egoitza sozialak, agentziak, erakunde juridikoen ordezkariak edo sukursalak, eskritorioak, bulegoak edo estudioak.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA.

1. Orokorrean Bizkaiko Lurralde Historikoaren Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan azaltzen diran persona fisiko eta juridikoak dira subjektu pasiboak zergadun kontzeptuan eta tasa honetan bereziki, honeek:

Jarduera lizentziaren eskatzailea eta Aurretiazko komunikazioa eta/edo aitopene erantzulea egiten dauena.

2. Horren kalte barik, Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 24. artikulua ezarritakoa kontutan izanda, lokalen jaubeak izango dira zergadunaren ordezkariak, eta jaubeek, halan danean, onuradunei jasanarazo ahal deusez kuotak

4. Artikulua: SORTZAPENA ETA ORDAINDU BEHARRA

1- Jarduera lizentzia:

a) Tasea sortu eta ordaindu beharko da zerga egitatea eragin dauen udal jardueraren hasten danean. Horretarako, jardueraren hasi dala ulertuko da lokala zabaltzeko lizentzia aurkezten dan egunetik aurrera, subjektu pasiboak eskabidea beren beregi aurkezten badau.

b) Establezimentua lizentzia barik zabaltzen danean, udal jardueraren hasten danean sortuko da tasea, establezimentuak eskatzekoak diran baldintzak beteten dauzan ala ez erabagiteko, beti be establezimentua zabaltzea baimentzeko instruitu daitekeen administrazio espedientea hasi dan edo ez kontuan hartu barik, edo establezimentua ixteko erabagia hartzeko, zabaltzeko moduan ez badago.

c) Tasea ordaindu beharra sortuta, ezarritako diran neurri zuzentzaileak bete behar dauzan lizentzia emoteak ez dau eraginik izango tasan, eskatzaileak lizentziari uko egin deusola-eta edo atzera bota dala-eta.

2- Aurretiatzko komunikazinoa eta/edo aitorten erantzulearen menpe dagozan establezimentuen edegite ondoko kontrola:

a) Tasa hau zergapeko egitatea osatzen dauen udal jarduerari hasikerea emoten jakonean sortzen da eta beragaz batera sortu be, ordaintzeko betebeharra. Ondorio honeetarako, jardueria hasi aurreko adierazpen idaztia aurkezten dan eguna hartuko da jardueraren hasierako egun modura, establezimentuak zabaltzeko hasikerako ekintza adierazoen prozedurea eta ondorengo kontrola arautzen dauen Udal Ordenantzeak ezarritakoa eta baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.bis artikulua ezarritakoaren arabera.

b) Era berean sortuko da tasea, jardueria edo instalazinoa garatzen diranean, establezimentuak zabaltzeko hasikerako ekintza adierazoen prozedurea eta ondorengo kontrola arautzen dauen Udal Ordenantzeak ezarritako aurretiatzko komunikazinoa aurkeztu orduko edota jardueria ez danean adierazo dana eta udalak ikuskatze lanak burutu eta gero eta horreen ondorioz egiaztetan danean garatutako jarduera pribadua.

c) Zergea ordaintzeko obligazinoa sortzen da garatu daitekeen lokal baxotxean, aurretiatzko komunikazinoa eta aitorten erantzulearen prozedurari lotutako jardueria egiten dan baxotxean (fabrikak, tailerrak, bulegoak, dendak, biltegiak eta edozein moetatako lokalak).

5. artikulua: KUOTAK.

Kuotak zenbateko finko baten finkauko dira espediente moetearen arabera:

zerga egitatea

1- Aurretiatzko komunikazinoa eta/edo aitorten erantzulearen menpe dagozanei buruzko udal jarduerak	276,42
2- Jarduera lizentzia	962,18
3- Jarduera lizentzia emon ostean kejea aurkeztu izanagatik edo matxuragaitik egindako ikuskaketak eta egiaztapenak musika ekipoek sortutako soinu maila neurtzeko eta mugatzeko	590,79
4- Aurretiatzko komunikazinoa edo aitorten erantzulea aurkeztuta udalak baldintza zuzentzaileak jarri behar ba dauz	138,21
5- Taberna, kafetegi eta horrelakoen sailkapena aldatzea	41,46

6. artikulua: ALDI BATERAKO JARDUERAK

Saldo eta iraupen laburreko beste negozioetarako establezimentuen kasuan tasea ordainduko da, baina aldi baterako jardueria amaituta lokala itxita dagoala egiaztata, hiruhilekoetan egokitzen dan zati proportzionala itzultzeko eskatu leiteke.

7. artikulua. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.

1.-Salbuespenak:

Leku aldaketak eta edegiteak tasearen ordainketatik salbuetsita egongo dira kasu honeetan: hondamen aitortenaren, hur-hurreko hondamenaren, desjaubetzearen, hondoratzeen, suteen, kaleratzearen edo epai irmoaren ondorioz gertatzen diranean, eta horren arrazoia jardueraren titularri egotzi ezin bajako, eta beti be, jardueria bera danean lekuz aldatzen edo barriro edegiten dana.

2.-Hobariak:

1.- Titularra aldatu barik:

- Negozio lokala handitzea.....: %50
- Jardueria handitzea.....: %50
- Lokala barrizteko obrea egiten denean.....: %50
- Jardueria tokiz aldatzea.....: %50

2(*).- Titularra aldatuta:

- Jardueria bera mantentzean.....: %30

3.- Alde Zaharrean jardueria barria igiritzea edo titularra aldatuta egon dagoana mantentzea% 50

Aurreikusitako hobari mota baten eskubidea bakarrik eukiko da.

3.- Hobarien onurak izateko, hobariak emoteko kasu bakoitzean gertatzen diran egoerak adierazo beharko dira eskabideetan.

Jardueria mantenduta jardueraren titularidade aldaketaren kasuan (*) honako baldintzak emoten diranean eukiko dau hobari eskubidea eta betetzen dauzala erakutsi beharko dau jagokezan agiriak aurkeztuta hobariaren eskariagaz batera:

- 1- Aurreko titularrak jarduerarako irekitze lizentzia eukitea edo aurre-komunikazioa onartuta eukitea.**
- 2- Titularidade aldaketa egin baino sei hilabete arinago aurreko titularrak jardueria martxan eukitea.**
- 3- Aurreko titularrak titularidade aldaketa egin arte EJZ altan egotea.**
- 4- Aurreko titularragaz jardueraren titularidadea aldatzeko akordioa eukitea.**

8- artikulua. KITAPENA ETA ORDAINKETEA

1- Jardueria lizentzia: Tasea jardueria lizentzia emoten danean kitatuko da eta kitapen zuzenez jakinarazoko jako zergadunari.

2- Aurretiazko komunikazioa eta/edo aitorten erantzulearen menpekoak:

a) Auto-likidazio erregimenean eskatuko da tasea, jardueria hasteari buruzko aurretiazko adierazpen idatzia aurkezten danean. Interesdunek Aitorten Erantzulean zehaztu beharko dabez tasearen ordainketetea egiaztetan daben datuak.

b) Bestelako kasuetan udal jardueria gauzatu danaren adierazgarria dagoanean kitatuko da kitapen zuzenez.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan beren beregi araututa ez dagoanarako aplikagarria izango da Kudeaketa, bilketa eta ikuskapenaren Ordenantza Orokorrean xedatutakoa.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udalbatzak 2012ko
egindako Osoko Bilkuran eta 2013ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.